

GAZTE LOKALAK: ASTIGARRAGAKO UDAL ORDENANTZA BERRIA

Ordenantzak zera dio: “Gaueko 22:00etatik goizeko 09:00etara ezingo da zarata gogaikarrik atera”. Eta horrek zer esan nahi du, goizeko 09:00etatik gaueko 22:00ak arte zarata gogaikarriak atera ahal izango direla? Azken finean, egoitza-izaeradun eraikin batzuei buruz ari gara, eta horrelako eraikinetan, auzokide guztiek bete behar dituzte elkarbizitza-arau jakin batzuk, eta elkarbizitza-arau horiek ez dute ordutegirik, hau da, eguneko 24 orduetan eta urteko 365 egunetan errespetatu behar dira.

Udalak zera dio: “Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak bizilagunen behar eta nahiak asetzeko eskumenak ematen dizkie udalerriei, eta aipatutako legearen 25.2m) artikulua hain zuzen ere, kultur ekintza eta instalazioen inguruko eskumenak ematen dizkie udalerriei”. Bai, baina Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak ez die udalerriei inongo eskumenik ematen eraikinen egoitzadun izaera euren kasa definitzeko. Hau da, eraikinen egoitza-izaera dagoeneko definituta dago lurralde-, erkidego- eta estatu-mailako izaera duten hainbat arauditan eta hainbat legeriatan, eta araudi eta legeria horiek udal arauen gainetik daude, maila handiagokoak izanik. Eta gainera, udal batek bere jabetzako instalazioak askatasun jakin batez gobernatu ahal izango ditu, baina besteren jabetzak ez.

Ordenantzak zera dio: 1.3. Lokalaren neurriak.- Lokalen gutxienezko azalera erabilgarria, beheko solairua neurtuta, 20 m²koa izango da eta gehienez 100 m² erabilgarrikoa”. Y aurrerago zera dio: “2.1. Okupazioa.- Gehienez baimendutako edukiera errespetatu beharko da: Pertsona bat bi metro koadroko, komunetako edo instalazioetako geletako azalera kanpoan utzita” . Orduan, 100 metro koadroko lokal batean 50 gazte sar daitezke, 50! Hori al da lagun-talde bat? Hau da, pentsa dezagun gure goiko auzo-lagunak 100 metro koadroko etxebizitza bat daukala eta 09:00etatik 23:30etara (eta goizaldeko 1ak arte jaiegunetan) 50 edo 25 pertsona izaten dituela gonbidatuta. Eta horrela, urteko egun guztietan. Hori bai, 65 dezibelioko muga errespetatuko dugula diogu. Baina, niri zer axola zait, zeren nik neure etxean 50 lagun sartzen baditut, egunero, zer esango diot auzokoari kexatzera etortzen denean, “ez, nik 65 dezibelioko muga errespetatzen dut”. Bada nire auzokoak muga hori jasan behar baldin badu, a zelako muga kakatia! “Arrazoizko” muga bat ere jar genezake zaborra ibaira botatzeko.

Egia esateko, goian aipatutako puntua eztabaidagarriena da, eta oso garbi dago burua oso gutxi nekatu dutela ondorio horretara iristeko. Edonork uler dezake 12 lagunez-edo osatutako gazte-talde batek lokal bat izatea bertan entretenitzeko. Eta gainerako auzo-lagunak bezain oharkabean pasatzen badira, ez dut inongo arazorik ikusten, lokal horretan egon ez daitezten. Baina, 50 lagun! ;25 pertsona 50 metro koadroan! ;30 pertsona 40 metro koadroan! Urteko egun guztietan eta egunean 12-14 orduz!! Ufa, baina hori zer da, gazte lokal patera bat...?

Erotu al gara ala?

Proposatzen denak eraikin baten egoitza-izaera apurtuko du. Eraikin bateko auzokoak gaizki tratatuta sentitu daitezke, zarataren ikuspuntutik. Nire ustez, aurreko hauteskundeetan nire konfiantzazko botoa izan zuen udal-gobernuak sentsibilitate eta kontzientziario txikia erakusten du kutsadura akustikoaren aurrean. Benetan gustatuko

litzaidake udal gobernu honek kutsadura akustikoaren aurrean erakustea hondakinen aurrean erakutsitako ardura berbera.

Eta beste gauza bat. Ni ez naiz aditua gai honetan (ez nuke nire denbora galtzen egon beharko gai hau “ikertzen”, udalean bere lana –ondo– egiteko kobratzen duen jendea egon badagoenean). Bestalde, Interneten irakurri dudanez, Europar Batasunean etxebizitzetarako baimendutako dezibelio kopurua 25 eta 30 db artean dago. Madrilen, esaterako, egunez 30 db eta gauez 25 db onartzen dira. Zergatik 65 db hemen? Eta gainera, ia-ia erabilera publiko eta masifikatua izango duten lokal batzuetan?

50 lagun, 30 lagun, 20 lagun altuera gutxiko eta egoitza-izaerako lokal batean sartuta... Eta 65 dezibelioko muga errespetatu beharko dutela diogu. Baina nola lortuko dugu hori? Mingaina moztuko al diegu gazteei lokaletan sartu baino lehen? Gor-mutuen elkartekoei bakarrik alokatuko al dizkiegu lokalak? 50, 30 edo 20 lagun denak batera hitz egiten, intsonorizazio berezirik ez daukan lokal batean, hianbeste jendek arazo handirik gabe erdiets dezakete taberna baten edo pub baten dezibelio-muga, soil-soilik hitz egiten, lagun-talde handi bat elkartzen denean.

Nire ustez, proposamena gehiago zehaztu behar da, batez ere lokal bat okupa dezakeen gehieneko lagun-kopuruari dagokionez. Lokala non dagoen kokatuta ere kontuan har daiteke, esaterako, egoitza-izaera totala duen eraikin batean dagoen, leku misto batean dagoen, industrialde batean dagoen...

Gainera, 10 gaztek bakarrik okupa dezaketen lokal batean 16 ez daudela egiaztatzeaz, esaterako, nor arduratuko da? Udaltzaingoa? Lokalen jabeak? Auzokoak? Edo, akaso, Joxe Moxe? Zeren, hori beste bat da, e? Eta lokal baten aurrean ozenki hitz egiten kontzentratuko diren gazteei –zigarro bat erre nahi dutelako, lokal barruan bero handia egiten duelako edo lokal barruan jendetza handia dagoelako– nork esango die ezer? Bide publikoan badaude, nork botako ditu hortik? Betetzea ia-ia ezinezkoa izango den udal ordenantza bat aterako ez ote dugun susmoa daukat.

Lokalen arteko distantziak 15-30 metro artekoak izango dira. Baina, horrek ez al du berekin ekarriko lokal-kontzentrazio handiegia...? Pertsona batzuek, etxea erosteko edo errentan hartzeko orduan, herri-gunetik urrunduriko kaleak aukeratu ohi dituzte, eta ostalaritzako establezimenduek eta abarrek sorrarazi ohi dituzten molestietatik aldentzeko egiten dute. Noski, horrek halako sakrifizio bat dakarkie, zeren herrigunetik aldentzeak esan nahi du dendetatik eta merkataritza-gunetik ere aldentuko direla. Baina, hala ere, horren aldeko hautua egiten dute, erosotasuna sakrifikatzea nahiago dutelako, bizitza-kalitatean irabazteko, lasaiago bizitzeko eta kaletiko kutsadura akustikorik gabe bizitzeko. Eta pertsona horiei zarata musu truk “sozializatu” behar diegu orain!

Eta musu truk diot, bai, zeren, azken batean, nik badakit honekin guztiarekin lokalen jabeek zer irabaziko duten, badakit gazteek ere zer irabaziko duten, baina... zer irabaziko dute auzokoek honekin guztiarekin? Zarata? Hori al da besteok irabaziko duguna?

Eta, esaterako, demagun 100 m²ko lokal baten jabeak gazte-talde handi bati lokala alokatzen diola 20 urtez, eta auskalo zenbaten truke (500-800 €)... Eta jabe koitadu horrek ez al du inongo obligaziorik lau txanpon ziztrin ere gastatzeko bere lokala minimoki intsonorizatzeke? Izorra dadila goiko auzokoa, ezkerrekoa eta eskuinekoa.

Eta auzokoren batek zarata dela-eta arazorik badu, jaits dadila hitz egitera gazteekin (ziur beso zabalik hartuko dutela), horixe bera esaten baitu (sic) ordenantzak.

Ezta Donostian ere ez dute hain okupazio-maila altua (gazte-kopurua/m²ko) ezarri; zeren, Astigarragako ordenantzan (edo, behintzat, ordenantzaren zirriborroan) ezarritakoa altuagoa baita, nahiz eta Donostiako eraikinik gehienak nabarmen handiagoak izan, Astigarragakoekin alderatuta. Ea horrek zer axola duen? Ba axola handia du. Eraikin handi batean, eskuarki, lokalen eta lehen etxebizitzaren artean dagoen altuera handi samarra izaten da. Eta solairuarteko hori hutsik egoten da, hau da, igogailuaren instalazioak, garajeetara jaisteko solairua, instalazio-gelak, eta abar hortxe kokatuta egoten baitira askotan.

Astigarragan, ordea, lokalen gainean, lokalek goi-goian duten lehen solairua etxebizitzaz osatua egoten da gehienbat. Eta lokalaren eta goiko etxebizitzaren artean egon daitekeen intsonorizazioa eta lehen solairuaren eta bigarren solairuaren artean egon daitekeena intsonorizazio berbera izaten da. Berriro jarriko dizuet lehengo adibidea. Pentsa ezazue zuen gainean bizi den auzokoak baimena daukala egunero 50 pertsona bere etxean sartzeko, eta horrela 14 orduz egunean. Hara, hori bai elkarbizitzaredu ederra! Intsonorizazioak? Zertarako? Ez diegu ba alferrikako gasturik sorraraziko lokalen jabeei, noski... Hori bai, 20 bezero zutik hartzeko lekurik ez daukaten hainbat taberna egongo dira han eta hemen, eta horiek bai, lokala goitik behera intsonorizatzen behartuko ditugu (eta nik begi onez ikusten dut, noski), baina gazte-lokala baldin bada, orduan ez, nahiz eta barruan 50 gazte sar daitezkeen, taberna txiki batean baino askoz jende gehiago. Intsonorizatzen behartu? Horixe behar genuen ba! Ea botoak galtzen ditugun, gero! (azken finean, horretan datza kontua, ezta?).

Gazteak ginenean inoiz ez genuen “gazte-lokalik” izan. Eta egia esan behar baldin badizuet, horren hutsunea ere ez genuen nabaritu. Bagenituen gure tabernak eta kafetegiak, eta kafe pare batekin arratsaldea pasatzen genuen kartetan edo xakean edo partxisean. Elkarte bat ere bagenuen (Donosti Berri zuen izena), pertsona gehiago eta aparteko gasturik gabe elkartu nahi genuenerako. Eta gure etxeak ere bagenituen, lagun gutxi batzuekin elkartzeko. Horra zer izan genuen. Eta kalea, zineak, pubak, diskotekak, mendia eta hondartza ere izan genituen. Ez genuen gehiagorik behar. Eta erantzukizun gutxiago bat izan zen bai guretzat bai gure gurasoentzat (atzo, Erreterian, gazte-lokal bat osorik erre zen. Eraikineko 50 auzokoak hustu behar izan zituzten, gauez).

Eta berriro esango dut: gauza bat da baimena ematea lagun-talde txiki batentzat lokal bat irekitzeko. Eta beste gauza bat da udal-baimena ematea gazte-lokal paterak irekitzeko, zeren 2 metro koadroko gazte bat sartzeko horixe ekartzen baitu, lokalak patera bihurtzea. 50 lagun lokal batean! Batzuetan, ez jatetxe txiki batean ez ostatu edo hotel txikitxo batean ez dituzte horrelako okupazio-mailak izaten. Baina udalari hau egitea sartu zaio kaskoan, azpiegitura egokirik gabe eta inongo intsonorizazio-lanik exijitu gabe. Hau bai lardaskeria hau!

Gainera, 18 urtetik aurrera, nire ustez, gazteek pentsatzen hasi beharko luketena da gurasoen etxetik alde egitea, baina ez gazte-lokal jendetsu batera alde egin, alkohola eta marihuana ezkutuan kontsumitzeko, baizik benetako etxe batera bizitzera joan. Hori da 18 inguruko gazteek behar dutena: “habiatik” alde egiten hasi, pertsona helduen gisara bizitzen hasi. Eta behar izanez gero, beste pertsona eta beste gazte batzuekin etxebizitzak partekatu.

Horrez gain, nik uste dut udal batek bere esku dagoen guztia egin behar duela beti-hutsik dauden lokalak okupatzeko, baina jarduera serioago, solidarioago, positiboago eta konplexuagoak aterpetzeko asmoz, esaterako, 20 edo 22 urterekin ikasketak amaituak dituzten eta lokal baten beharra daukaten gazteei laguntzeko lan-jarduera bat aurrera ateratzen, berdin dio lortzen duten edo ez, baina gutxienez has daitezela harreman serio bat izaten lan-munduarekin, bizitzarekin oro har, pertsona beregain modura.

Zenbait jarduera garatzeko ez da ezinbestekoa lokalak herri-gunean bertan egotea. Gisa horretako jarduera asko dira: diseinu grafiko, industrial eta komertziala; itzulpengintza; arte ederrak eta eskulangintza; gestoriak; kontabilitate-bulegoak; bulego-lanak, oro har; zuzenbidean lizentziatu berri diren abokatu gazteentzako despatxuak; arkitektura edo ingeniari teknikorren bat amaitu berri dutenak eta, hasteko, estudio txiki bat besterik behar ez dutenak; eta oro har, modu autonomo batez ekonomia-jarduera bat garatzeko gai izan daitezkeen pertsonak, eta printzipioz, leku handi baten premiarik ez daukatenak (bueno, kontuz, 100 m2 metro koadro asko dira. 100 metro koadroan jarduera asko jar daitezke martxan).

Nire ustez, udal batek bultzatu beharko lukeena hori da, erraztasunak emanez lokal horiek gazteek nahiz helduek okupa ditzaten, lokalen okupazioa lan-helburuekin sustatuz, eta ez honako ordenantza hau, liskarrak eta ondoeza besterik ekarriko ez diguna. Baina, noski, oso tentagarria da politika “erraz” eta “interesatu” bat egitea, ea nor den “jatorrena” eta “progreena”, gazteen botoekin kalkuluak eginez, jakinda ere gazte horietako batzuek botoa emango lioketela astean boteloi bat oparituko liekeen alderdiari.

Eta, berariaz, hemen asko hitz egiten da parte-hartzeari buruz. Baina, parte hartu, zertan? Gai hau erabaki al dugu denon artean erreferendum batean? Gai honetan aplikatu al dugu “auzo-komunitatearen printzipioa?”, erabakitzeko ea herri osoa edo afektaturiko auzokoak edo gehiengo bat ba ote dagoen planteamendu honekin ados, edo, akaso, ikusteko ea proposamena ondo iruditzen zaigun baina beste modu batean planteatuz gero? Ez. Hemen denon artean erabakitzen den gauza bakarra da ea nortzuk izango diren onerako zein txarrerako gobernatuko gaituztenak. Gainerako guztia bakan batzuek nahi bezala erabakitzen dute, dekretuz edo ordenantzaz.

Azkenik, eta bukatzeko, argi utzi nahi dut lokalak gazte-taldeei alokatzeko ideia ontzat jotzen dudala, baina gazte-talde horiek ez lukete –nire iritziz– 12 lagunetik gorakoak izan beharko, lokalak dituen metro karratuak dituela. Eta egun seinalatuetan izan ezik (esaterako, herriko jaietan izan ezik), inoiz ez litzateke onartu beharko kopuru hori legez gainditzea. Horrez gain, lokalen gehieneko okupazio-maila beste faktore batzuen arabera handiagotu ahal izango litzateke, esaterako, kontuan harturik ea lokalak etxebizitza-eraikinetatik urrun dauden, ea industrialde batean dauden, ea inguru misto batean dauden, e.a.

Laburbilduz: gazte-lokalak BAI. Gazte-lokal paterak EZ.

Eta horra nire iritzia.